

Sailburu andrea, Ertzaintzaren arduradunak;
Bizkaiko Batzar Nagusietako lehendakaria;
Ertzain jaun-andreak, herri-ordezkeriak, egun on:

Lehenik, Gipuzkoako Batzar Nagusien izenean, eskerrik asko gonbidapenagatik. Poz hartu nuen Gernikako Arbolaren kimua Oiartzungo Ertzain Etxe nagusian orain 20 urte landatua izan zela oroitzeko asmoaren berri izan nuenean, eta burura etorri zitzaidan ze indartsuak diren zenbait hitz eta sinbolo.

“Ertzain” hitza, hitz ederra benetan: herria zaintzen duen polizia, segurtasuna ematen duena. Baina segurtasuna baino gehiago da zaintzea, esan nahi baitu herriaz arduratzea, herriaren onaz eta bakeaz arduratzea, eta indarra erabiltzean, ertzainen “zaintzak” esku batean su-arma eta informazioaren arma daramatza eta bestean, funtsezko giza eskubideak. Azken batean, gure herrian bakea zaintzeko polizia, horra Ertzaintza, nahi eta behar dugun polizia.

Bestetik, gaur, ekitaldi honetan, ez du nolanhiko ikurra gogoratzen Oiartzungo Ertzain Etxeak: Euskadiren askatasunaren sinboloa, Gernikako Haritzaren kimua. Pozgarria da arbola hau ikustea Oiartzungo lurrian, nola errotu eta itsatsi den euskaldunon askatasunaren sinbolo hau, gure herriaren askatasuna zaintzeko ere baden Ertzain Etxean. Azken urteotan azpimarratzen den segurtasuna jar dezagula beti askatasunaren zerbitzura, ez askatasuna segurtasunaren menpe.

Azkenik, beste irudi bat pentsarazi dit Gernikako Haritzaren ondorengo honek: gaztea da baina zuhaitza da erabat, oso-oso; ez du ezer falta arbola izateko eta, aldi berean, egiten ari da arbola, eten gabe. Gauza bera Ertzaintza. Hasieratik polizia osoa izateko izan zen sortua, gure herriko polizia. Hori da jatorrizko erabaki politikoa betetzea eta, gainera, errealitateari erantzutea, berrituz, zabalduz, egokituz. Hala ari da Gernikako Arbolaren kimu hau ere, lur berrira moldatuz eta haziz, bere fruitua emateko. Imajina egokia Ertzaintza ulertzeko.

Bizi luzea eta oparoa gure Herriaren askatasunari eta bakeari gerizpea ematen dion Gernikako Arbolari, eta berdin Ertzaintzari, Gipuzkoako lur sail honetan.

Oiartzun, 2019-09-19